



**5/2021 TXOSTENA, URTARRILAREN 29KOA, KONTRATAZIO  
PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEAREN BATZORDE  
IRAUNKORRARENA.**

**XEDEA: DEKRETU-PROIEKTUA, EKONOMIA ETA OGASUN SAILAREN  
EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA FINKATZEN DITUENA.**

**I.- AURREKARIAK.**

18/2020 Dekretuak, irailaren 6koak, lehendakariarenak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioeko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, honako hau ezartzen du 9. artikuluan:

*«1.- Honako egiteko eta jardun-arlo hauek dagozkie Ekonomia eta Ogasun Sailari:*

- a) Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak zuzendu, landu eta horien kudeaketa orokorra egitea, baita jarraipena eta kontrola ere. Horietaz gain, aurrekontuei buruzko programazioa.*
- b) Sektore publikoaren aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna.*
- b) Barneko ekonomia-kontrola, kontabilitatea eta kontabilitate-erantzukizunak.*
- d) Laguntza eta dirulaguntza publikoen araubidea arautzea eta gainbegiratzea.*
- e) Kredituaren antolamendua, finantza-politika eta finantza-erakundeekiko harremanak. EAEn finantzaketa eta partaidetza publikoko tresna publikoen kudeaketa EAEko sektore ekonomikoetan.*
- f) Aurrezki-kutxak, banku-fundazioak eta kreditu-kooperatibak.*
- g) Diru-bilketaren kudeaketa, diruzaintza, zorpetzea eta bermeak ematea.*
- h) Aseguru- eta berraseguru-jarduera, bai eta aseguru-bitartekaritzaren jarduera baimentzea eta kontrolatzea ere.*



- i) Balore-merkatua*
- j) Gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.*
- k) Ekonomia Ituna, Estatuarentzako kupoak eta lurralde historikoen ekarpenak. Transferitzeko eskumen edo zerbitzuak baloratzea, eta Estatuarekiko finantza-fluxuak finkatzea, Gizarte Segurantzaren finantzaketari dagokionez.*
- l) Finantza-jarduera beste administrazio publiko batzuekin koordinatzea.*
- m) Harmonizazio, koordinazio eta lankidetzak fiskala.*
- n) Zergen administrazioa eta erreklamazio ekonomiko-administratiboak.*
- o) Ondarea eta kontratazioa.*
- p) Gobernuaren politika ekonomikoa eta plangintza estrategikoa, bai eta programa eta politika publikoen ebaluazioa eta azterketa ere.*
- q) Europako kohesio-politika, Europako suspertze- eta erresilientzia-funtzen plangintza eta azterketa.*
- r) Ikerketa ekonomikoa. Azterlan eta metodo ekonomikoak. Ekonomiaren koiuntura eta aurreikuspena.*
- s) Lehiaren defentsa.*
- t) Estatistika*
- u) Sailari atxikita dauden edo haren mendeko diren sektore publikoko entitateak zuzentzea, legeek eta erregelamenduek ezartzen dutenaren arabera.*
- v) Legeek eta erregelamenduek ematen dizkioten gainerako ahalmenak».*

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak haxe dio azken xedapenetako lehenengoan: «Sailburuek, Jaurlearitzi buruzko Legearen 26.2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, 2020ko abenduaren 31 baino lehen, euren sailei dagozkien erregelamendu organikoen proiektuak aurkeztuko dizkiote lehendakariari, onarpena eman diezaien. Proiektu horiek Gobernu Programan sailei izendatutako



*jardun-eremu bakoitzerako aurreikusitako helburuetara eta printzipio gidarietara egokitu beharko dira.*

*Erregelamendu horiek honako antolamendu-irizpide hauei jarraituko diete: austeritatea, egiturak lautzea, eduki zabaleko arlo funtzionalak elkartzea, egiturazkoak ez diren staff arlo funtzionalak identifikatzea eta informazioaren teknologiak ahalik eta gehien aprobetxatzea».*

Hala, dagokion dekretu-proiektua egitea sustatu da, Ekonomia eta Ogasun Saileko egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, eta horren bidez, 9. artikulua horretan esleitutako esparruei dagozkien eginkizunak gauzatu ahal izateko.

2021eko urtarrilaren 13an, sail horrek eskabide bat aurkeztu zuen, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeak dekretu-proiektuari buruzko txostena egin zezan.

Prozedurak elektronikoki izapidetzeko Tramitagune aplikazio informatikoaren bidez izapidetutako espedientean (erreferentzia: DNCG\_DEC\_109377/20\_06), honako agiri hauek agertzen dira, interesgarriak direnak txosten honi dagokionez:

- Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, 2020eko abenduaren 3koa, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko dekretu-proiektuaren prestaketa-prozedurari hasiera ematen diona.
- Agindua, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, 2020ko abenduaren 28koa, zeinaren bidez aurretiazko onarpena ematen baitzaio Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari.
- Dekretu-proiektuaren testua.
- Dekretu-proiektuaren memoria, Ekonomia eta Ogasun Saileko Zerbitzu zuzendariak sinatuta.
- Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostena.



## II.- ESKUMENA.

Txosten hau Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eman behar du, nahitaez, uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoak (aurrerantzean, 116/2016 Dekretua), 27. artikulua a) letraren 1. apartatuan ezarritakoari jarraikiz, xedapen orokorraren edukiak, zati batean, kontratazio publikoaren eremuko alderdiei eragiten baitie, eta ondorioz, Gobernu Kontseiluari baitagokio hura onartzea.

Bestalde, eta 116/2016 Dekretuaren 30. artikulua 2. apartatuaren a) letraren arabera, egitura organikoak eta funtzionalak arautzeari dagokionez, Aholku Batzordeari dagokion aholkularitza-eginkizuna Batzorde Iraunkorrak beteko du.

Irismenari dagokionez, txosten honetan sektore publikoko kontratuen araubide organiko eta juridikoari eragiten dioten dekretu-proiektuaren esparruak jasotzen dira soilik; izan ere, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honek kontratazio publikoaren gaineko eskumenak ditu bakarrik. Horiek horrela, honako hauek aztertuko dira:

## III.- KONTRATAZIOAREN ARLOAREKIN LOTUTAKO ESPARRUAK:

Ondoren, proiektuan jasotako esparru guztiak transkribatuko dira:

### **«2. artikulua.- Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura orokorra.**

*1.- Aurreko artikuluan zehazturiko gaiei buruzko eskumenak baliatzeko, Ekonomia eta Ogasun Saila organo hauetan egituraturik egongo da:*

[...]

*d) Ogasun Sailburuordetza*

[...]

*Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.*



[...]

3.- *Organo hauek ere Ekonomia eta Ogasun Sailera atxikita egongo dira, sorrera-arauetan zehaturik duten bezala:*

[...]

d) *Kontratazio Batzorde Nagusia.*

e) *Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordea*

[...]».

**«3. artikulua.- Ekonomia eta Ogasun sailburua.**

[...]

2.- *Beste zeregin hauek ere Ekonomia eta Ogasun sailburuaren ardura dira:*

[...]

d) *Sailaren 1.000.000 euroko edo hortik gorako gastuak baimentzea, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak.*

[...]

f) *Ekonomia eta Ogasun Saileko kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak betetzea, baldin eta oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000 eurokoa edo hortik gorakoa duten kontratuak eta hitzarmenak badira.*

*Halaber, prestazioen zenbatekoa aurreko paragrafoan zehaztutakoaren berdina bada edo kopuru hori gainditzen badu, berari dagokio sektore publikoaren kontratazioaren araubide erregulatzailerekin bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kide diren entitateen bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duten erakundeei enkarguak egiteko eskumena.*

[...]».

**«6. artikulua.– Zerbitzu Zuzendaritza.**

1.– Zerbitzu Zuzendaritzak, dekretu honetako 8. artikuluan adierazitakoez gain, honako egiteko hauek izango ditu:

[...]

d) Sailaren 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimentzea.

[...]

2.– Zerbitzu zuzendariak erabiliko ditu Ekonomia eta Ogasun Saileko kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak, oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000,00 eurotik beherakoa duten kontratu eta hitzarmenetan.

Halaber, prestazioen zenbatekoak aurreko paragrafoan zehaztutakoa gainditzen ez badu, berari dagokio sektore publikoaren kontratazioaren araubide erregulatzailarekin bat etorritz Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kide diren entitateen bitarteko propio pertsonifikatuaren izaera duten erakundeei enkarguak egiteko eskumena.

[...]».

**«8. artikulua.– Ekonomia eta Ogasun Saileko zuzendaritzak.**

Orokorrean, zeregin hauek izango dituzte Ekonomia eta Ogasuneko zuzendariek:

[...]

i) Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak inplementatzea eta horien jarraipena egitea zuzendaritzaren jarduketa-alorretan, esaterako: itzulpen-irizpideak, langileen etengabeko prestakuntza orokorra, izendapen ofizialak eta sailak antolatutako ekitaldi publikoak. Halaber, hala dagokionean, administrazio-kontratuetan eta dirulaguntzak emateko deialdietan hizkuntza-irizpideak sartzea proposatzea.

[...]».

**«17. artikulua.– Ondare eta Kontratazio Zuzendaritza.**

*Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzak, dekretu honetako 8. artikuluan adierazitakoez gain, honako egiteko hauek izango ditu:*

[...]

*b) Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio barruan kontratazio araubidea garatu eta koordinatzen duen zentro zuzentzaile denez, izaera orokorrez, Ekonomia eta Ogasun Sailari dagozkion eskumenak izango ditu. Arlo horri dagokionez, jardunerako eta barne antolaerarako arauak ezar ditzake kontratazio espedienteak izapidetzerakoan eta kontratuen eta kontratisten erregistroko kontuetan.*

*c) Hauek ere badagozkie:*

*1) Kontratazio Batzorde Nagusiaren eskumeneko kontratazio-espedienteak izapidetzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazio-araubidea arautzen duen araudiarekin bat etorritz.*

*2) Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko botere esleitzzaileen kontratu-jardueraren alorrean kontratazio-araubidearen gainean indarrean dagoen legedian xedatzen diren txostenak egitea.*

*3) Sektore publikoan integratutako erakundeei bultzada, laguntza eta aholkuak ematea kontratazioaren arloan. Eskumen hori baliatzeari dagokionez, hauek dagozkie:*

*– Kontratazioaren alorrean beharrezkotzat jotzen diren arau-proiektuak sustatzea, kontratazio publikoan orokorrean aplikatu daitezkeen.*

*– Kontratazioaren alorrean zirkularrak egiteko eta gomendioak onartzeko ahalmena.*

*– Kontratazio publikoaren alorrean bitarteko elektronikoak eta informatikoak ezar daitezkeen sustatzea eta bitarteko horiek garatzea.*

*- Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari iritzia eskatzea, titularraren bidez, garrantzi bereziko edo botere esleitzzaileentzako interes orokorreko gaien inguruan, aholku-organo horren iritzia (txostena, gomendio edo orokorrean aplikatu beharreko irizpideak ezarriz) beharrezkoa, egokia edo komenigarria dela uste duenean. Bereziki, nahitaez eta txertatu aurretik, aholku-*



*organo horren iritzia jaso beharko dute helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukera-berdintasunari dagozkionak dituzten proposamenek.*

*- Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeei laguntza eta aholkuak ematea, hargatik eragotzi gabe erakunde horietako organoek alor horretan dituzten eskumenak.*

*- Laguntza teknikoa eta administratiboa ematea Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzardeari.*

*- Sektore publikoko kontratuen araudian aurreikusitako lankidetzak publiko-pribatuko formulen bitartez proiektuak eta jarduketak egiteko aholkularitza eta jarraibideak ezartzea, sustatzea.*

*4) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta Instituzionalaren horniduren, obren eta zerbitzuen kontratazioa kontratazio zentralizatu izendatzeko administrazio-espeditentea osatu eta izapidetzea, eta mota horretakotzat jotako prestazioak eskuratzeko kontratazio irekiko espeditentek kudeatzea.*

*5) Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuen eta lizitatzailerik eta enpresa sailkatuen erregistroak ikuskatu eta kudeatzea.*

*6) Kontratisten sailkapenari buruzko espeditentek izapidetzea.*

*7) Kontratazio elektronikoaren definizio funtzionala ematea eta ezarpena koordinatzea.*

*8) Kontratazio Publikoa Euskadin plataforma kudeatu eta mantentzea.*

*[...]*

*e) Ondarearen, kontratazioaren eta arrisku eta aseguruaren kudeaketaren alorrean indarreko legeriak ematen dion beste edozein eskumen [...]*».





116/2016 Dekretuaren 6. artikulua haxe ezartzen du: «*Administrazio Orokorrean, hura osatzen duten sailen titularrak izango dira kontratazio-organoak [...] salbu eta besterik xedatzen bada egitura organiko eta funtzionalari buruzko dekretuetan [...]».*

Ahalmen hori baliatuz, dekretu-proiektuak honako aurreikuspen hauek jaso ditu, eta horietatik sortuko da kontratazio-organoen egitura hau:

- 3.2.f) artikulua lehen lerrokadan dioenaren arabera, sailburuari dagokio Ekonomia eta Ogasun Saileko kontratazio-organoari esleitutako ahalmenak erabiltzea, baldin eta oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000 eurokoa edo hortik gorakoa duten kontratuak eta hitzarmenak badira.
- 6.2 artikulua lehen lerrokadan dioenaren arabera, Zerbitzu zuzendariak erabiliko ditu Ekonomia eta Ogasun Saileko kontratazio-organoari dagozkion ahalmenak, oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, 1.000.000,00 eurotik beherakoa duten kontratu eta hitzarmenetan.

Dekretu-proiektu horren aipatutako 3.2. f) eta 6.2 artikuluetan honako hau jaso da: «*[...] oinarrizko lizitazio-aurrekontua edo, halakorik ezean, balio zenbatetsia, BEZa barne, [...]».* Bada, «*halakorik ezean*» dioen tartekia aldatzea gomendatzen da, eta horren ordeztzea «*horrelakorik ez badago*»; izan ere, oinarrizko lizitazio-aurrekontua beti agertu behar da, salbu eta horrelakorik ez badago, esaterako, esparru-akordio bat delako; soilik horrelakorik ez dagoen kasuetan aplikatuko da balio zenbatetsiaren kontzeptua, oro har, oinarrizko lizitazio-aurrekontuarekin erkatuta oso desberdina baita. Hortaz, ez da ustezko aukera gisa agertu behar; aitzitik, kontratazio-organoa zehazteko soilik muturreko salbuespen kasuetan aplikatu daitezkeen kontzeptu modura agertu behar da.

Kontratazio-organoa edo organoak egituratzea Sailari berari dagokion antolaketa-gai bat da; hortaz, aipatutako aurreikuspenak bat datoz Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren kontratazioaren araubidea ezarri zuen uztailearen 27ko 116/2016 Dekretuko xedapenekin.



Dekretu-proiektuko 3.2.f) eta 6.2 artikuluetan, bigarren paragrafoetan, bitarteko propio pertsonifikatuei enkarguak egiteko ahalmena jorratzen da. Kontuan hartuz 3.2.f) artikuluko bigarren paragrafoan aipatu dela eskumena Ekonomia eta Ogasun sailburuarena dela prestazioen zenbatekoa aurreko paragrafoan zehaztutakoaren berdina bada edo kopuru hori gainditzen badu (1.000.000 euro), bada 6.2 artikuluko bigarren paragrafoko lehen tartekiak, Zerbitzu zuzendariaren eskumenari buruzkoak, honako hau jaso behar du: «*Halaber, prestazioen zenbatekoa 1.000.000 eurotik beherakoa denean [...]»*. Hala, zenbatekoaren muga bat etorriko da Zerbitzu zuzendariaren eskumenari dagokionarekin, kontratazio-organo gisa; bidenabar, proiektuaren gaur egungo bertsioan dagoen akatsa zuzendu egingo da, hain zuzen ere, 1.000.000 euroren pareko kopurua duten enkarguak egiteko ahalmena sailburuarena zein zuzendariarena dela jaso baita oraingo bertsioan.

Dekretu-proiektuko 3.2.d) artikulua ezarri zuen sailburuak baduela eskumena Saileko gastuak baimentzeko 1.000.000 eurokoak edo gehiagokoak badira, hargatik eragotzi gabe Gobernu Kontseiluaren eskumenak. Bestalde, dekretu-proiektuko 6.1.d) artikuluan jaso zen Zerbitzu Zuzendaritzari dagokiola «*Sailaren 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimentzea»*.

Aipatutako 6.1.d) artikulua 1.000.000 eurora arteko kopurua duten Saileko gastuak baimentzea egiturako antolaketa-unitate baten esku utzi zuen (Zerbitzu Zuzendaritza), modu pertsonal eta indibidualean baliatu beharreko eskumenak izanik, beti organo pertsonalizatu bati dagokiolako (kasu honetan zuzendaria); horrenbestez, 1. apartatuko d) letraren edukia artikulua beraren barruan 2. apartatu berri batera eramatea gomendatzen dugu; honela geratuko litzateke:

«*2.- Sailaren 1.000.000 eurotik beherako gastuak baimentzea Zerbitzu zuzendariari dagokio»*.

Hala, dekretu-proiektuaren 6. artikuluko 2. eta 3. apartatuak aurrerantzean 3. eta 4. apartatuak izango dira, hurrenez hurren.



Hala, zenbatekoaren muga bat etorriko da Zerbitzu zuzendariaren eskumenari dagokionarekin, kontratazio-organo gisa, eta bitarteko propio pertsonifikatuei enkarguak egiteko eskumenarekin; bidenabar, proiektuaren gaur egungo bertsioan dagoen akatsa zuzendu egingo da, hain zuzen ere, 1.000.000 euroren pareko gastuak egiteko baimena sailburuarena zein Zerbitzu zuzendariarena dela jaso baita oraingo bertsioan.

Dekretu-proiektuaren 8.i) artikulua Ekonomia eta Ogasun Saileko zuzendarien eskumenak jaso zituen, esanez «[...] *administrazio-kontratueta hizkuntza-irizpideak proposatzea dagokiola* [...]». Horren haritik, «kontratazio administratiboa»-ren ordezkari «kontratazio publikoa» jarri behar da, eta berariaz aipatu behar da Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilaren 26an onartutako Akordioaren jarraibide eta printzipioen arabera garatu behar dela eskumen hori. Akordio horren bidez, hainbat printzipio orokor ezartzeko jarraibideak onartzen dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak, sektore publikoko kontratuen legeriaren esparruko kontratazioaren barruan, euskara erabili eta ezagutu dezan. Txosten honen xedea ez bada ere, kontuan hartu behar da jarraibide horiek zehaztu egin behar direla, hizkuntza-klausulak ezin baitira eskatzen diren gaitasun teknikoko baldintzetako edukia izan.

Dekretu-proiektu honen 17. artikulua Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzari dagokion egitekoak jaso ditu, 8. artikuluan aipatutakoez gain. Egiteko horiek bat datoz 116/2016 Dekretuko xedapenekin.

Aipatutako 17. artikuluko c) letrako hirugarren apartatuko bosgarren paragrafoko azken tartekia honela idaztea proposatzen da: «*Bereziki, nahitaez eta txertatu aurretik, aholku-organo horren iritzia jaso beharko dute helburu sozialak, ingurumenaren arlokoak, helburu linguistikoak eta aukera-berdintasunari dagokionak, digitalak, berrikuntzakoak, ETEak sustatzekoak eta erantzukizun sozialeko helburuak dituzten proposamenek*».

Dekretu-proiektuko aipatutako 17. artikuluko c) letrako laugarren apartatuko azken tartekian «kontratazio-espeditente irekiak» jarri beharrean «*hasitako kontratazio-espeditenteak*» esaera erabiltzea proposatzen da; izan ere, esaera zuzena izan arren,



nahasmendua eragin dezake ulertu daitekeelako kontratuak adjudikatzeko irekitako prozedurari egiten diola erreferentzia.

Dekretu-proiektuko 17. artikuluko c) letrako 6. apartatuan, «*kontratatistak*» jarri beharrean «*enpresak*» jarri behar da, SPKLra eta 116/2016 Dekretura egokitzeke.

Ekonomia eta Ogasun Saileko Aholkularitza Juridikoaren txostenean plazaratutako iruzkinaren irizpidearekin bat etorriz, dekretu-proiektuko 17. artikuluko c) letrako zazpigarren apartatua horrela idaztea proposatzen da: «Kontratazio elektronikoaren ezarpenari buruzko definizio funtzionala egitea, garatzea, hobetzea eta ezarpen hori koordinatzea».

Kontuan hartuta esandakoa, **ALDEKO TXOSTENA** ematen zaio Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretu-proiektuari, betiere dekretu-proiektu horren edukia txosten honetan emandako gidalerroen eta aholkuen arabera egokitzen bada.